

IRAGARKIA

62. ALDIZKARIA - 2002ko maiatzaren 22a

III. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

ITURMENDI

Ordenantza behin betiko onetsita

Iturmendiko Udalak, 2001eko urriaren 31n egin bilkuran, aho batez onetsi zuen, hasiera batez, Ezkondu gabeko bikote egonkorren Iturmendiko Udalaren erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza.

Erabaki hori jendaurrean egon zen hogeita hamar eguneko epean, ediktua argitaratuta Udalaren iragarki oholean eta 134. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, azaroaren 5ekoan, eta ez zuen inork erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu.

Horrenbestez, aipatu erabakia betetzeko, behin betikoz onetsitzat jotzen da ordenantza hori; halaber, 2002ko martxoaren 5ean egin osoko bilkuran, onetsi egin zen, eta bidezko da haren testua Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea osorik.

Iturmendin, bi mila eta biko apirilaren bostean. Alkatea, Julen Galarza Otxoa.

EZKONDU GABEKO BIKOTE EGONKORREN ITURMENDIKO UDALAREN ERREGISTROAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Ezkondu gabeko bikote egonkorren Iturmendiko Udalaren erregistroak administrazio izaera du eta bertan ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzeak, hala heterosexuak nola homosexuak, baita haien iraungitzea ere, inskribatzen ahal dira ordenantza honetan ezartzen den eran eta baldintzetan.
2. art. Bikote guztiek, sexu berekoak izan edo ez, erregistroan inskribatzeko eskatzen ahal dute, baldin eta haien adostasun libre eta osoarekin ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzea osatu badute.
- Gutxienez, elkartutako kide batek egon beharko du Iturmendiko udalerrian erroldatua, bertan bizi ohi delako.
- Halaber, bi kideek zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dute, adierazteko ez daudela ez ezkonduak ezta inskribatuak ere ezkondu gabeko bikote egonkorren bertze erregistroren batean.
3. art. Bikote bakoitzaren lehenbiziko inskripzioa egiteko, bi lagunek batera agertu beharko dute Udaleko idazkariaren aitzinera, haien artean ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzea osatzen dutela deklaratzeko.
- Ez da inskripziorik eginen bikoteko bat emantzipatu gabeko adingabea bada, edo lerro zuzenean odolkidetasunezko edo adopzio bidezko ahaide badira, nahiz alboko lerrotik bigarren maila bitarteko odolkidetasunezko ahaide badira.
- Bikoteko batek akats edo anomalia psikikorik badu, orduan ere ez da inskripziorik eginen. Horrelakoetan, medikuaren irizpena beharko dute, ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzea osatzeko gaitasuna aitortzen diena.
- Era berean, ukatu eginen da inskripzioa bikoteko bat ezkondua badago edo ezkontzeko gaitasun gabea deklaratu bada.
4. art. Lehenbiziko idazpena egitean, bikoteak beren arteko elkarteari buruz adierazten dituen argitasun guztiak agerrarazten ahalko ditu. Hitzez hitz idazten ahalko dira elkartutako kideen giza eta ondare loturak arautzen dituzten hitzarmenak.
- Aitzineko lerrokadan aipatutako edukiak geroago ere inskribatzen ahalko dira bikoteko biak bertara azaldurik.
- Nolanahi ere, elkartzea bukatu edo iraungitzeko oharpenak egiteko, aski izanen da kide bakar batek hala eskatzea.
5. art. Erregistroa Udaleko idazkaritza orokorrean izanen da.
6. art. Aitzineko artikuluetan aipatzen diren inskripzioak erregistratzeko Liburu Orokorra erabiliko da. Liburua orri mugigarri, zenbatu eta zigitatuez osatua dago, eta irekitzeko eta ixteko eginbideak paratuko dira hasieran eta bukaeran.
7. art. Bikote bakoitzaren lehenbiziko inskripzioak oinarritzko inskripzioaren izaera izanen du eta horren bazterrean geroago Liburu Orokorrean elkarteari buruz egiten den bertze edozein idazpen agerraraziko da.
8. art. Erregistroak Liburu Lagungarri bat izanen du, inskribatuen deituen arabera ordenaturik, eta bertan adieraziko da Liburu Orokorreko zenbatgarren orrialdean dauden haiekin zerikusia duten oharpenak.
9. art. Erregistroan inskribatutako intimitatea, norbanakoarena nahiz familiarena, babesteko, ez zaio publiziterik emanen idazpenen edukari, salbu eta idazkariak egiten dituen egiaztagirak, bikoteko edozein kidek, epaileek edo auzitegiek hala eskatu ondoren.

10. art. Inskripzioak dohainik izanen dira arrunt.

11. art. Izatezko bikoteen erregistroan inskribatzen diren ezkondu gabeko bizikidetasunezko elkartzeek, ezkontza bidezko elkartzeen tratamendu bera izanen dute Iturmendiko Udalean.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Ordenantza hau berrikusiko da, legeetan aldaketarik bada gai honen inguruan.

I. ERANSKINA

Iturmendiko Udalean, halako egunean (urtea, hilabetea, eguna): eta halako orduan:, honako hauek batera agertu gara:

Izena:, jaioterria:, helbidea (errolakoa):, adinez nagusia (edo adingabe burujabea, horren agiria aurkezten baitugu), N.A.N. zenbakia:,

Izena:, jaioterria:, helbidea (errolakoa):, adinez nagusia (edo adingabe burujabea, horren agiria aurkezten baitugu) N.A.N. zenbakia:

Eta honako hau azaldu nahi dugu:

Udal honetako erregistroan ezkondu gabeko bikote egonkor gisa inkriba gaitzatela nahi dugula, ezkontzaz kanpoko elkartze zibilen egonkorren udal erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituzten arauekin bat.

Ondokoa adierazten dugu:

Lehendabizi: aipatu ordenantzaren aurreikusitako bizikidetasuna dela eta, gure helbidea honako hau izanen dela: (gogorarazi behar zaio jaun/andreaki T.A.O.L.aren 15. artikuluari jarraikiz, errolatu beharra duela ohiko bizilekuko udalerrian).

Bigarren: ez gaudela gu biok ezkontzaren bidez lotuak, ez eta gutako inor bertze inorekin ere.

Hirugarren: gure artean ez dagoela lerro zuzenean odolkidetasunezko edo adopzio bidezko ahaidetasunik, ez eta alboko lerrotik bigarren maila bitarteko odolkidetasunezko ahaidetasunik ere.

Laugarren: gutako inork ez duela akats edo anomalia psikikorik, ez eta elkartzeko inolako ezgaitasunik ere.

Borzarren: ez dugula nahi / nahi dugula (ezabatu ez dagokiona) gure arteko giza nahiz ondare mailako harremanen gaineko hitzarmena erregistroan inskribatzea.

Seigarren: baimena ematen dugula Iturmendiko Udal Erroldan honako datu hauek egiaztatzeko.

Eta zin egiten dugu gutako inor ez dagoela inskribatua ez Iturmendiko erregistroan, ez maila eta xede bereko inongo herritako erregistroan ere.

Horrenbertzez,

Elkartze zibilen Iturmendiko Udaleko erregistroan inkriba gaitzatela eskatzen dugu.

Sinatua: Sinatua:

II. ERANSKINA

Iturengo Udalean, halako egunean honako hauek agertu gara:

Izen-abizenak:, N.A.N.:, eta

Izen-abizenak:, N.A.N.:,

Eta elkartze zibilen Udal Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantzaren zehaztutakoarekin bat, adierazten dugu asmoa dugula gure arteko bikote egonkorra bukatutzat edo iraungitatzat emateko; izan ere, horrelaxe inskribatua dago aipatu Udalaren erregistroan.

Horiek horrela, eskatzen dugu bukatutzat edo iraungitatzat eman dezazuela elkartzearen inskripzioa.

Iragarkiarene kodea: a0203779